5. zk. / 2018

# Arreta Soziosanitarioko Buletina
## Abendua 2018

## Gonbidatua

### *Genero indarkeriari bizirautea*

Emakumeen kontrako indarkeria, generoarekin lotutako berdintasun falta estrukturalen ondorioa da; eta desagerrarazi dezakeen bakarra berdintasunean oinarritutako gizarte bat da. Arazo sozial batez ari gara, bizi duten emakumeen osasunean eta bere seme-alaben osasunean ondorio larriak dituen arazo sozial batez, eta arazo soziala den heinean erantzunak ere globala, bateratua eta koordinatua behar du izan; instituzio guztietatik koordinatua.

2014 amaieran, Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuak indarkeria pairatzen duten emakumeei eskainitako arreta hobetzea erabaki zuen. Horretarako, lan-ildo ezberdinak bateratzen dituen estrategia bat bere egin zuen: gaian aditua den pertsona baten bitartez proiektua sustatzea, profesionalen sentsibilizazio eta trebakuntza eta osasun arloko maila ezberdinen koordinazioa, gizarte zerbitzuekin eta beste erakunde batzuekin.

Gure proiektuaren helburua kasuen komunikazio zirkuitu bat sortzea zen, jarraipen asistentziala bermatuko zukeena, eta arlo sanitarioaren eta baliabide sozial eta komunitarioen arteko komunikazioa erraztu era bai. Lau urte pasa dira egitasmo honekin hasi ginenetik eta oso pozik gaude lortutako emaitzekin. Bizkaia osoan, lehen mailako arretan atzematen diren kasuen %47a gure ESIan egiten dira, eta askotan kasua gainontzeko erakundeei jakinaraztea eta hauek inplikatzea lortzen dugu, hau beti ematen ez bada ere.



Emaitzek aurrera egitera garamatzate, eta helburu anbiziosoagoak jartzera, detekziorako posizio pribilegiatu batean baikaude gure erakunde sanitarioan. Indarkeria matxistari biziraun dioten emakumeen erakunde baten egoitzan izan gara berriki, Zure Ondoan erakundearen egoitzan. Bertako kideek egoera hau pairatzen ari diren emakumeei entzun eta laguntzen diete, beren esperientzia propiotik. Erakundeko Lehendakariak esan zigun *indarkeriatik irteteko ate bakarra dagoela: indarkeria hori identifikatzea*; eta horretan lagundu behar diegu, ahal dugulako.



Arazo estruktural bati ordea, erantzun antolatu bat eman behar zaio, eta horretarako ezinbestekoa da instituzioek elkar ezagutzea, elkar ulertzea eta gaiaren inguruan profesional modura trebatzea. Kasu hauek talde-lanean aztertu eta tratatu behar ditugu, eta arreta integral eta pertsonalizatu bat emateko gai izan behar dugu, emakume bakoitzak bizi duen errealitate eta egoeran oinarritutako arreta bat.

**Iratxe Regidor**
**Coordinadora sociosanitaria**
**OSI Barrualde- Galdakao**

## Albisteak




***A new measure of poverty for the UK.***
**Pobrezia neurtzeko era berri bat Erresuma Batuan**

**Gehiago irakurri...**




**Zaintza lana eta zaintzaileak. Etorkizunean lan duin bat izan dezagun.**

**Gehiago irakurri...**




**Autismoaren Espektroaren Nahastea komunikabideetan nola landu**

**Gehiago irakurri...**




**Adinberri kongresua. Zahartze osasuntsuaren erronkak eta aukerak Gipuzkoan**

**Gehiago irakurri...**

## Albisteak




**WE GO!**

**Genero indarkeria jasan duten emakumeen aktibazio soziolaboralerako programa**

Gehiago irakurri...




**Berdintasun eza eta honek errentarekin duen harremana**

Gehiago irakurri...




***Impact of the Care Quality Commission on provider performance.***
**"Kalitate Batzordearen inpaktua hornitzaileen lan egiteko eran"**

Gehiago irakurri...




***A year of Integrated care systems. Reviewing the journey so far.***
**Urtebete zaintza integratuen sistemekin. Orainartekoaren azterketa**

Gehiago irakurri...

## Albisteak




*European Health Report. More than Numbers*.
**Europako osasunaren txostena. Zenbakietatik haratago**

**Gehiago irakurri...**




**Epe luzeko zaintzen erronka Europan. Politika nazionalen ikerketa lana.**

**Gehiago irakurri...**



**Ingalaterrak suizidioaren prebentziorako ministerio bat du**

**Gehiago irakurri...**




**Zaintzen jarraipena eta koordinazioa. OMEk sustatzen dituen "Pertsonak ardatz dituzten osasun zerbitzuak" inplementatzeko gakoak**

**Gehiago irakurri...**

## Albisteak



### Buru Osasuna zaintzeko hamar aholku

Gehiago irakurri...




### Generoen arteko etenak

Gehiago irakurri...



### Simposiuma Donostian "Arreta integratuko ereduen diseinu eta inplementazioa Euskal Autonomia Erkidegoan: nazioarteko ikuspegi bat"

Gehiago irakurri...




### Haur eta nerabeen kontrako indarkeriaren prebentzioa eta honi aurre egitea. OMEk eskuliburu bat argitaratu du, 7 estrategiarekin

Gehiago irakurri...

## Albisteak




**2. Nagusi International Conference, BIzkaia Silver Week**

**Gehiago irakurri…**




***Homes that help: A personal and professional perspective on home adaptations***
**Laguntzen duten etxeak: Egokitutako etxebizitzen inguruko ikuspuntu pertsonal eta profesionala**

**Gehiago irakurri…**



***Invisible Beauty*: Alzheimerra duten gaixoak dantzaren bitartez estimulatzen**

**Gehiago irakurri…**

**Editore Taldea**
Aitor Lopez de Aberasturi, Catarina Paz eta Maialen Fidalgo

Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 Araudi Orokorrean xedatutakoa betez, argitalpen hau bidaltzeko zein beste argitalpen batzuen berri emateko zure baimena eman diguzu.

Buletina jasotzen jarraitu nahi ez baduzu, **baja hemen** eman dezakezu coordinacionsosa@bioef.org helbidera idatzi ezkero. Halaber, dagozkizun eskubideak erabiltzeko helbide honetara jo dezakezu: Eusko Jaurlaritza, Arreta Soziosanitarioa, Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz.

Informazio honetara iritsi zara eta interesgarria iruditu zaizu? **Buletin hau ere jaso eta Arreta Soziosanitarioari buruzko informazioarekin egunean izatea nahi duzu?** Gure webgunean **alta eman dezakezu** esteka honen bidez: http://www.euskadi.eus/sociosanitario/-/informacion/suscripcion-boletin-atencion-sociosanitaria/